

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN SEGURTASUNAREN SAILA

Ibilgailuen tratamendurako zentro baimendu batera eramatea eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erregistroan baja eskatzea

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateratua onetsi zeneko urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 106.1 artikulua-
ren arabera, ibilgailu bat tratamendu-zentro baimendu batera eramatea agindu dezake udalak,
baldin eta:

a) bi hilabetetik gora egin badu udalaren ibilgailu-biltegian, bide publikotik kendu zenetik,
eta titularrak alegaziorik aurkeztu ez badu,

b) bi hilabetetik gora egin badu bide publikoan ibilgetuta, eta titularrak alegaziorik aurkeztu
ez badu,

c) hilabetetik gora egin badu bide publikoan, eta bere bitarteko propioak baliatuz lekuz
aldatzea ezinezko egiten duen hondamena erakusten badu, edo matrikula-plakak falta baditu.

Herritarren Segurtasuneko zinegotzi ordezkariak, eskumenak eskuordetzeko alkatearen
2019ko ekainaren 21eko dekretuak aitortzen dion aginpidea baliaturik, adierazten den ibilgailuak
—aurreko egoera horietakoren batean daudenez gero— tratamendu-zentro baimendu batera
eramatea ebatzi du 2020ko ekainaren 8an, eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailu Erre-
gistroan horien baja eskatzea. Hala jakinarazten zaie interesdunei, dagozkion ondorioetarako.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 8an

Herritarren Segurtasunaren Saileko zuzendari nagusia
JAVIER SÁEZ LANAS

T5019BF

C2318BNZ

1026BMP

BI3958CV

1904CVF

5842FKK

4603BSD

2521CGF

2814BRS

2700GHY

4715DTX

6649BRT

0015GHH

VI9840N

BU5099P

VI3638K